

## Bezeroekiko harremana

Guk ekoitzitako produktua supermerkatuetan salgai egongo da eta hau bezeroak erakartzeko aukera ona izango da. Supermerkatuetako aldizkarietan ere ikusgarri egongo da, ondorioz jendea erakarriko du. Gure bezeroek internetetik kontaktatu ahal izango dute gurekin; laguntza bertatik eskatu ahalko dute edo bestela gure lokalera hurbildu daitezke edozein informazio mota jasotzeko gure produktuari buruz. Lokala Leioan dago eta Euskal Herriko bakarra da. Beste aldetik, Amazonen salduko dugunez, bezeroek erosotasun osoz erosiko ahalko dute gure aterkia. Badakigu askoz erosoagoa dela internetetik erostea denbora aurrezten duzulako edo Covid garai hauetan, kutsatzeko arriskua ekiditu daitekeelako; arrazoi hauengatik Amazonetik saltzea aukera ona da gure enpresa aurrera eramateko.

Web orri bat izango dugu baita ere, lehen esan dugun bezala produktua Amazonen salduko dugu baina han ezin dugu azalpenak, informazioa ezta ezer jarri. Beraz, erabaki dugu web hau egitea dena ondo azañtzeko eta galderak baldin badaude, hor erantzuna aurkitzeko. Ikusi ahal duzue prezioa, tamaina, modeloak... Gure produktuaren informazio guzti guztia dagohor, bestela ere gure telefonoa eta gmail helbidea gurekin kontaktatzeko.